

KURKULUXETAN ALDIZKARIA

AURKIBIDEA:

- “DENA EZ DA FUTBOLA” FILMA
- KURTZO HASIERA
- ZAPARRADA HAUR KONPARTSA
- HITZ ETA PITZ
- SAIO BERRIAK
- ZIRKUITATZEN ARI DIREN ANTZEZLANAK



“DENA EZ DA FUTBOLA” FILMAREN ESTRENALDIA

“Dena ez da futbol”-“No todo es fútbol”, euskal eta venezuelar nazioetako haurrek egindako ko-produkzioa da, eta bertan, beraien ikuspegitik begiratuta, futbolearen sarritan gertatzen diren zenbait egoera azaltzen dizkigute, adiskidetasuna eta genero berdintasuna argumentuaren oinarritzat hartuta.

Bi Herri ezberdin, 7.000 kilometro baino gehiagok urrundutako bi kultura, eta aitzitik, haurren bidez, itsaso eta mugen gaineratik dauden giza balioen inguruko hausnarketa egiteko zenbait mezu helarazten dizkigute. Abizen berdina (Etxeberria) duten mutil venezuelar bat eta neska euskaldun bat baztertu egiten dituzte haien lagunak. Mutilaren kasuan, ustez, futbolearen txarto jokatzen duelako; eta neska kasuan emakume izategatik. Internet bidez elkar ezagutzen dute eta norberari gertatzen zaiona elkarri

kontatu ondoren, egoerari aurre egitea erabakitzen dute.

17 minutuko film labur hau “Kurkuluxetan” elkarteak ekoizten duen bigarrena da; aurrekoa “Keinuka mugaz gaindi” izan zelarik, Kubako haurrekin batera.

Ikus-entzunezko material pedagogiko berri hau burutzeko hainbat lagunengatik parte hartzearekin kontatu dugun bezala, erakunde publikoen laguntza eza ere jasan behar izan dugu.

Hala ere, hasiera batean zehaztutako helburuak bete egin ditugu, hots, ekoizpen kultural bat egitea; ekoizpen hori euskaraz egitea; material pedagogiko baliogarri bat sortzea balioak lantzeko, eta bi Herrien arteko adiskidetasuna bultzatzea.

Filmaren protagonistak hauek izan dira: Alaitz Zelestino, Iratxe Bernaola eta José Alejandro Jiménez

Bestetik, Zuzendaritza orokorra, Rita Naveira eta Koldo Zelestinoren eskutan egon da. Halaber, Venezuelako talde eragile bat egon da, zine munduan eskarmentu handikoa dena: Norma Courlaender zine zuzendaria, Alfredo Medina aktorea eta Edwar Guanipa ekoizlea.

Grabaketak Venezuela eta Euskal Herriko hainbat tokitan egin ziren (Igorren, Diman eta Coro hirian). Film honekin batera Unitate Didaktiko bat prestatu dugu, nolabait, pelikularen material osagarri gisa.

Estreinaldiak aldi berean daude programatuta bi kontinentetan. Izan ere, Urriaren 21ean (asteazkena), arratsaldetako 18,30ean, Igorreko Kultur Etxean lehenengo estreinaldiaren eguna izango da, eta bertan, besteak beste, Arratia eskualdeko zenbait alkate egoteaz gain (Igorre, Dima, Arantzazu, Lemoa, Artea, Areatza,...), ikastetxeetako zuzendari eta irakasleak, Igorreko institutuko ikasleak, Arratia futbol taldeko zuzendaritza eta jokalariek ere egongo dira. Halaber, Bilbon kokaturik dagoen Venezuelako Kontsula den Yolanda Torres Urbinaren



presentziaz ere kontatuko dugu. Ondoren, Venezuelako estreinaldiak egingo dira:

Urriaren 27an, Coro hirian ospatuko den “IV. Muestra Audiovisual Latinoamericana y del Caribe para niños y niñas -Luces del Alba-“ jaialdian.

Urriaren 30ean, Caracas hirian, CNAC-en egoitzan (Centro Nacional Autónomo de Cinematografía) eta bertoko hamar “Parrokietan” (Kultur Etxeak)

Halaber, Venezuelako zinema guztietan, pelikula komertzialen aurretik, “Dena ez da futbol”ren bertsio laburrago bat (13 minutukoa) proiektatuko da.

Eta ondoren, hainbat tokitara zabalduko da...Kolonbia, Kuba, Belgika, Katalunya...

Filma denon eskuetara heltzea nahi dugunez gero, interneten zintzilikatuko da, nahi duenak jaitsi dezan.



ANTZEZLAN BERRIAK:

OLENTZEROREN BIDAIA ZORAGARRIAK

Behin batean Olentzero mendira abiatu zenean lan egiteko, istripu bat izan zuen eta kolpe bat buruan hartu zuen. Horren ondorioz, memoria galdu zuen ezer gogoratzen ez zuelarik: ez zekien nor zen, ez zekien non zegoen, nortzuk ziren bere lagunak.... Ez zekien haur guztiak bera oparien zain zeudela!!!. Izan ere, bidez bide, toki ezberdinetara abiatu zen jakin gabe nora zihoan, baina bestetik, hainbat jende eta herri ezagutzeko aukera izan zuen. Txinara, Saharara, Andaluziara eta beste hainbat lekutara iritsi zen bertoko abestiak ikasiz eta hainbat abentura gertatuz. Baina zer gertatuko da Euskal Herriko haurrekin Olentzero ez bada itzultzen?. Nork ekarriko ditu opariak etxeetara? Zer egingo du Mari Domingik Olentzero ez badator? Zer nolako Gabonak ospatuko ditugu Olentzerorik gabe? Etorri gurekin eta lagun iezaguzu Olentzero berriro gureganatzen!!! Gabonetarako antzezlan dibertigarri honetan Olentzerori buruzko ikuspegi zabal bat eskainiko dizuegu; alegia, gure nortasun eta kulturatik abiatuta, munduko beste herrietako Gabonei buruzko ohiturak, abestiak eta pertsonaiak ezagutuko ditugu. Era honetan, gaur egun, gure artean bizi diren hainbat etorkinen kulturaren zati bat guregana hurbiltzeko parada izango dugu. Abestiz hornituriko antzezlan hurbila eta erakargarria aurkezten dizuegu Gabon datetan gozatzeko.



Zirtaka antzerki taldeak aurkezten du:



Robustiana eta Zeledonio suntsituriko etxe batean bizi dira, dirurik gabe...eta gainera haien amama gaixorik dagoenez botiak behar ditu. Egoera honi buelta emateko zenbait burutazio praktikan jarriko dute dirua lortzeko, hainbat egoera barregarri sortuz, baina denak alferrik izango dira. Zeledonio desastre bat da: alferra, traketsa, arina...; aldiz, Robustiana orekatua, zentzuduna eta langilea da..., antzeko daukaten gauza bakarra zera delarik: sudurluze bat!. Baina zer egingo dute dirua lortzeko?. Etorri gurekin haien abenturez gozatzera eta amaierako sorpresa magikoa ikustera.

ZU ETA NI SUDURLUZE BI

GURE BETIKO IPUINAK

Amama bidaiak egitera joan da...baina...ene! Bere maleta hemen ahaztuta utzi du! Zer egongo da barruan? Etorri nahi duzue zer dagoen barruan ikustera? Horretarako indartsuak izan behar dugu, agian guztiok batera saiatzzen bagara, lortuko dugu. Hara! Zein nolako kapela! Uy! Zerbait dago idatzita! "Ipuinak entzun nahi badituzue, esan hitz magikoak" Hitz magikoak? Zuek badakizue zeintzuk diren? Ipuinak entzun nahi badituzue eta ipuinetan sartu nahi baduzue etorri Behinola ipuin kontalariekin ondo pasatzera!



KURTZO HASIERA

Urria heldu da eta ikastetxe guztietan antzerkigintza klaseak hasi dira. Aurpegi ezagunak ikusi ditugu, beste batzuk hasiera batean ez ditugu ezagutu uda pasatu ostean askoz altuago ikusi ditugulako eta beste batzuk berri berriak direlako.

Aste osoan zehar astelehenetik ostiralera, bai goizez bai arratsaldean antzerki eskolak eman ditugu ikastetxe eta ikastola askotan, Deustuko La Sallen eta Salesianoson, San Inazioko Intxixun, Bilboko Cervantesen Artxandapen eta Zurbaranen, San Adriango Urretxindorran, Kafe Antzokian, Derioko Kukuke eskolan, Etxebarrin eta Lemoan hain zuzen ere.

Eta poz-pezik gaudela esan behar da umeak oso jatorrak direlako; klaseetako "radiografia" egin dugu eta umeak nolakoak diren ikusi dugu, baina argi dago, betiko moduan, ustekabeak egongo direla, eta nola ez! ustekabe onak izango direlakoan gaude.

Neskak, mutilak, altuak, baxuak, alaiak, lotsatiak, era guztietako umeak aurkitu ditugu, baina gauza bat amankomunean daukate, hots, guztiek ondo pasatu nahi dute eta geu ere haiekin ados gaude! Goazen antzerki klasetan ondo pasatzera!!

HITZ ETA PITZ: UMEAK ETA ANIMALIAK



Josu Zabala
Musikaria

Alfred Hitchcock zinemagile handiak zeharo argi adierazi zigun: “ Ez egin lanik ume edo animaliekin! ”. Aspaldian entzun nuen esaera xelebrea, edo hobeto esanda, Alfredek esan omen zuela. Irrati batean lan egiten dudanez ez nuen uste horrelako tranpa batean erortzeko arriskurik izango nuenik, bada-kizue Bilbo Hiria irratia euskara eta euskal kulturari begira dagoen irratia da, eta bertan animaliek ez dute lekurik, besteak beste ez dakitelako euskaraz, gainera zer garrantzi eduki lezake animalia baten ir(r)ji(n)tziak. Eta ez bada oso noizbehinka konbidatu gisa edo, umeek ere ezin dute leku handirik eduki gurea bezalako irradi serio batean, ondo dakigulako umeak ez direla pertsona serioak. Orduan, nola bukatu dut nik “Ane Monna, Oskola eta Karramarroi” itsasotik etorritako animaliatxo, baina aldi berean ume bihurri, bizi, olgati, euskaldun eta surrealistenkin?.

Zertan nabil ni, ume-animalia eta marrazki bizidunek diruditen lankide hauekin? Saioa hasi eta segituan, arrapaladan, lagun zein eskola edota familiko kontuak ekarriko dizkigute, beraien arazo txikiak edota amets handien partaide bihurtuko gaituzte eta beti izango da tartea kantu eta jolaserako edo imajinazioa piztuko digun ipuin eder bat entzuteko patata tortilla jatera joan baino lehen. Eta hori dena euskaraz, badakizue ume eta animaliekin erabiltzen den hizkuntza hori. Alfredek arrazoi zuen :“ Ez egin lanik ume edo animaliekin! ”. Umeekin lan egitea baino hobea da jolastu, ikasi, bizi eta batez ere gozaten saiatzea. Eta animaliekin ere bai.

Gaur ez dago eskolarik zapatu eta domeketan goizeko 10etan Bilbo Hiria irradian FM. 96.0 eta bilbohiria.eus atarian.

ZAPARRADA HAUR KONPARTSA

Etorri gurekin, etorri zaparrada konpartsa-ekin ondo pasatzera hurrengo ekimenera: **OLENTZERO JAIA**. Abenduaren 20an Kafe Antzokian arratsaldeko 17:30ean. Bertan Kurkuluxetan Antzerki eskolako kideek sorpresa bat prestatuko digute, Olentzeroren antze-lan berria ikusi ahal izango dugu Zirtaka antzerki taldearen eskutik eta nola ez Diskodantza eta txokolatada ederra izango duzue ere.

Animatu eta etorri gugaz ondo pasatzera .

Gora Zaparrada konpartsa.!!

www.zaparrada.eus

OLENTZERO JAIA !!
Kafe Antzokian
ABENDUAK 20

- KURKULUXETAN ANTZERKI ESKOLA
- ANTZERKIA: "OLENTZEROREN BIDAIA ZORAGARRIAK"
- DISKODANTZA
- TXOKOLATADA

Arratsaldeko 17:30ean sarrera 5€

Kafe Antzokia Kurkuluxetan

Kurkuluxetan antzerki eskola

KURKULUXETAN
umegunea
Done Bikendi, 2-4,
48001 Bilbo (Bizkaia)



DRAMATIZAZIOA
IKASTETXEETAN



GURE ANTZEZLANAK

"BEHINOLA" IPUIK KONTALARIEN AURKEZTEN DUTE:

BERRIA

gure betiko ipuinak

Kontratazioa: umegunea@gmail.com - Tel: 662 472 746
www.kurkuluxetan.org

"BEHINOLA" IPUIK KONTALARIEN AURKEZTEN DUTE:

amoniaren
sutondoko ipuinak

Kontratazioa: umegunea@gmail.com - Tel: 662 472 746
www.kurkuluxetan.org

Zirtaka antzerki taldeak aurkezten du

Olentzeroren sekretua

Kontratazioa: umegunea@gmail.com - Tel: 662 472 746
www.kurkuluxetan.org

Zirtaka antzerki taldeak aurkezten du

BERRIA

OLENTZEROREN BIDAIA ZORAGARRIAK

Kontratazioa: umegunea@gmail.com - Tel: 662 472 746
www.kurkuluxetan.org

Zirtaka antzerki taldea

URTAROAK
VIVALDIREN
BEGIETATIK
ANTZERKI BELTZA

Kontratazioa: umegunea@gmail.com - Tel: 662 472 746
www.kurkuluxetan.org

Zirtaka antzerki taldeak aurkezten du:

BERRIA

ZU ETA NI
SUDURLUZE BI

Kontratazioa: umegunea@gmail.com - Tel: 662 472 746
www.kurkuluxetan.org

Zirtaka Antzerki Taldeak aurkezten du

Maddi Pirata

etorri pirataz mozorroturirik!

Kontratazioa: umegunea@gmail.com - Tel: 662 472 746
www.kurkuluxetan.org

Ane Monna, Oskola eta Karramarroi
Antzerki Taldea

PEPITAREN LIBURU MAGIKOA!

Kontratazioa: umeguneazibalgara.org - Tel: 662 472 746
www.kurkuluxetan.org

INFORMAZIOA EDO KONTRATAZIOA

Kurkuluxetan Elkarte
Done Bikendi, 2 - 4,
48001 BILBO - 662472746
www.kurkuluxetan.org
umegunea@gmail.com